

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

ANTOLAKETA ZERBITZUA

Foru Gobernu Kontseiluaren 42/2017 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa, aldatzen duena otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretua, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuak onarpena eman zion Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organiko eta funtzionalari.

Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onarenak, xedapen gehigarrietatik bigarrenaren 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera, sailen egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuek zehaztuko dute zein administrazio unitatek hartuko duten foru arau horretan ezarritako eginkizunen ardura.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak proposatu du Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzako Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak, Funtzio Publikoko Zuzendaritzako Funtzio Publikoko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako Antolaketa Zerbitzuak gauzatu ditzatela 1/2017 Foru Arauan ezarritako eginkizunak, eta, horretarako, aldatu beharra dago 10/2016 Foru Dekretua, 9., 11. eta 16. artikuluei beste idatz zati bat gehituta.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 10/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluari beste eginkizun bat, 7.a, gehitzea; beraz, orain arteko 7. eginkizuna 8.a izango da aurrerantzean.

"6. artikulua. Administrazio unitateen buruen eginkizun orokorrak

7. Ahalik eta laguntzarik handiena ematea otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauari, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onarenari, loturiko eginkizunak bere gain hartuko dituen saileko administrazio unitateari.

8. Arautegi organikoetan eta Foru Aldundiaren erabakietan agintzen zaizkien gainerako eginkizunak."

Bigarrena. Beste idatz zati bat gehitzea 10/2016 Foru Dekretuaren 9., 11. eta 16. artikuluei.

"9. artikulua. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzua

10. Politika publikoen ebaluazioa, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea kudeatzea dagokion zuzendaritzaren eskumeneko gaietan, bat etorritik otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onarenak, ezarritakoarekin."

“11. artikulua. Funtzio Publikoko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua

10. Politika publikoen ebaluazioa, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea kudeatzea dagokion zuzendaritzaren eskumeneko gaietan, bat etorritz otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onarenak, ezarritakoarekin.”

“16. artikulua. Antolaketa Zerbitzua

10. Politika publikoen ebaluazioa, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea kudeatzea dagokion zuzendaritzaren eskumeneko gaietan, bat etorritz otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onarenak, ezarritakoarekin.”

Hirugarrena. Foru dekretuaren gainerako zehaztapenak berdin mantentzea.

Laugarrena. Onartu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean foru dekretu hau, ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abuztuaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta

Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Zerbitzu Orokorren zuzendaria

ANA MARÍA DEL VAL SANCHO